


| | | |
|---|---------------|---|
|  AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H | IL0022 | Hirugarrenaren alta (Bankuko Datuak) |
|---|---------------|---|

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Tramite honekin Udaleko hartzaileen bankuko datuei alta emango zaie edo aldatu egingo dira Hirugarrenen Erregistroan, bere alde sortuko diren zenbatekoak kobratu ahal izateko, betiere zenbateko horiek sortu badira, besteak beste, diru-laguntza espediente baten ondorioz, tributu eta fidantzen itzulketen ondorioz edo faktura ez telematikoen kasuan.

NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxanoko Udaleko edozein hartzailek, pertsona fisikoa edo juridikoa bada ere.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E098 Hirugarren alta eskaera](#)

Interesatuak eskatzen badu:

- Eskaria eredu normalizatuan.

Bere ordezkariak esakatzen badu:

- Baimena ematen duen inprimakia, eredu normalizatuan.
- Interesatutako pertsonaren NANaren fotokopia edo hori ordezkatzeko duen beste nortasun agiri bat.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- kontuhartzaitza@amorebieta.net

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 10 egun

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Aurrekontu Orokorra Betearazteko Araua](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

HAZk eskaria egiaztatu ondoren, Diruzaintzara bidaliko da alta emateko Udaleko hirugarrenen erregistroan.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK